

EL NEOLIBERALISMO VASCO  
PREFIERE LOS CONVENIOS  
ESPAÑOLES

# HEMEN, GEUK ERABAKI

**NUESTRAS DECISIONES, AQUÍ**



**HITZARMEN ESTATALEK  
POBREZIA AREAGOTZEN DUTE**

LOS CONVENIOS ESTATALES  
AUMENTAN LA POBREZA



**HEMENGO NEGOZIAZIO  
KOLEKTIBOAREN ALDE**

POR UNA NEGOCIACIÓN  
COLECTIVA DE AQUÍ



**EUSKAL GEHIENGO  
DEMOKRATIKOAREN  
ERRESPECTUAGATIK**

POR EL RESPETO A LAS MAYORÍAS  
DEMOCRÁTICAS VASCAS

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

# NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA ESTATALIZATZEN DUTE LAN-BALDINTZAK OKERTZEKO

## ESTATALIZAN LA NEGOCIACIÓN COLECTIVA PARA EMPEORAR LAS CONDICIONES LABORALES

Gure erabaki ahalmena berreskuratzeko eta gure lan-baldintzak hemen negoziatu ahal izateko batesa lortu nahi dugu ekimen honen bitartez; langileentzat duinak diren lan-baldintzak nahi ditugu.

*Con esta iniciativa queremos recabar apoyos para recuperar nuestro poder de decisión y negociar aquí nuestras condiciones laborales; unas condiciones dignas para los trabajadores y las trabajadoras.*



# HEMEN, GEUK ERABAKI

## NUESTRAS DECISIONES, AQUÍ



Espanian onartu diren lan erreformei ahalik eta etekin handiena ateratzeko strategiarekin jarraitzen dute Confebaskek eta estatuko sindikatuek. Erreformek eskaintzen dizkieten abantailen artean dago negoziazio kolektiboaren estatalizazioa.

### METODOA

Patronalak euskal hitzarmenen negoziazioa blokeatzen du estatuko itunak indarrean jar daitezzen. Hitzarmen horiek Madrilen adosten dira CCOO eta UGT sindikatuekin, euskal eremuan minoritarioak direnak.

### EMAITZA

Gutxiengo pribilegiatu baten etekinak handitu egiten dira; langile-klasea prekarietatean hondoratzen dute. Soldaten jaitsiera horren ondoren, gainera, gizartearen txirotze larria gertatzen da.

### JUSTIZIA SOZIALA

Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu ez laguntzeko eta ez finantzatzeko Confebask orain arte egin duen bezala; askatasun sindikalaren eta negoziazio kolektiboaren eskubidearen alde egiteko eskatzen diogu.

PSOE eta PPren gobernuek onartutako erreformen eraginez, lan hitzarmenek beren indarra galtzen dute (denboraren igarotzeagatik soilik). Horregatik, nahikoa da patronalak ez negoziatzea, eta legeria berriari esker, estatuko hitzarmenak ezartzen dira. Horrez gain, erreformek lehentasuna ematen diete enpresako hitzarmenei sektoreko hitzarmenen aurrean.

*La aplicación de las reformas aprobadas por los gobiernos del PSOE y del PP permite que los convenios pierdan su vigencia (por el simple transcurso del tiempo); basta que la patronal no negocie para que, gracias a la nueva legalidad, se apliquen los convenios estatales. A ello hay que sumar la prioridad que conceden las reformas al convenio de empresa sobre el sectorial.*

*Confebask y los sindicatos estatales continúan con su estrategia de sacar el máximo partido a las reformas laborales aprobadas en España. Una de las ventajas que ofrecen las reformas es la estatalización de la negociación colectiva.*

### MÉTODO

*La patronal bloquea la negociación de los convenios vascos para que entren en vigor los convenios estatales. Dichos convenios se acuerdan en Madrid con CCOO y UGT, que son minoritarios en el ámbito vasco.*

### RESULTADO

*Aumentan los beneficios de una minoría privilegiada; se hunde en la precariedad a la clase trabajadora. Tras esa caída salarial se produce, además, un grave empobrecimiento social.*

### JUSTICIA SOCIAL

*Demandamos al Gobierno Vasco que ni apoye ni financie a Confebask como viene haciendo hasta ahora, y que, por el contrario, defienda la libertad sindical y el derecho a la negociación colectiva.*



## 2

# ZER LORTU NAHI DU CONFEBASKek?

## ¿QUÉ PRETENDE CONFEBASK?

2011ko uztailean Confebaskek akordio bat egiteko aukera planteatzen digu euskal sektore hitzarmenak "babesteko" estatuko hitzarmenen aurrean. Gerora, ordea, iritziz aldatzen du, lurraldeko patronalek bultzatuta: Adegik, Cebekek eta SEAk. Azken hauek ez dute nahi soilik euskal hitzarmenak babesteko akordioa; gehiago nahi dute: malgutasun handiagoa nahi dute, eta gatazkak eragozteko mekanismoak jartzea. Ildo beretik, Confebaskek atzera bota zuen Urkullu lehendakariak eta orduko enplegu sailburuak, Aburtok, euskal hitzarmenei iraunaldi luzeagoa emateko gidatu zuten saiakera.

**Euskal patronalak erabaki du proposatzen dituen baldintzak onartzen ez baditugu (hitzarmenetan atzera-jotzea, lanaldia luzatu eta malgutasuna handitzea...) negoziazioa blokea dezakeela. Horrela, estatuko itunak aplikatzea eta gure soldatak eta baldintzak kaltetzea lortzen dute.**

*La patronal vasca ha decidido que si no aceptamos las condiciones que plantea (retrocesos en los convenios, aumentos de jornada y de flexibilidad...) bloqueará la negociación para sacar todo el jugo posible a las reformas del PSOE y del PP. De esta manera, la negociación colectiva estatal le ayuda a devaluar nuestros salarios y condiciones.*

*En julio de 2011 Confebask nos plantea la posibilidad de un acuerdo para "blindar" los convenios sectoriales vascos frente a los estatales. No obstante, cambia de criterio impulsado por sus patronales territoriales: Adegik, Cebek y SEA. Estas no quieren un acuerdo únicamente para blindar, quieren más: mayor flexibilidad y mecanismos que eviten la conflictividad. Asimismo, Confebask rechaza el intento liderado por el lehendakari Urkullu y el entonces consejero de empleo Aburto para lograr un acuerdo que conceda algo más de vigencia a los convenios vascos.*



Gobierno Vasco  
Eusko Jaurlaritzza



SEA



ADEGI



CEBEK



CONFEBASK



CEN

# 3 ZER PROPOSATZEN DU ELAK?

## ¿QUÉ PLANTEA ELA?

Erreformen eragina eta bizi dugun egoera aztertu ondoren, ELAk bere aldarrikapen helburuak ezarri zituen negoziazio kolektiborako: KPlri atxikiriko soldata-igoerak, prekarietatea geldiaraztea, hitzartutako baldintzen txartzea eragozte eta sinatu diren hitzarmenak eta ul-traktibitatea aplikatuko direla bermatzea.

Sektoreko negoziazioetan patronalak eragiten duen blokeoa ikusita, ELAk enpresa-hitzarmenen negoziazioa sustatzea ere planteatu zuen. Enpresa esparrua lan-baldintzak okertzeko eta malgutasuna areagotzeko besterik ez du nahi patronalak. Aldiz, enpresatako antolakuntza sindikala jarriz erdigunean, ELAk indar harremana hobetu nahi du, enpresaren aldebakartasuna eragozteko. Erreformen aurka eta patronalaren blokeoaren aurka egiteko erantzun koherentea da, ELAren ustez, enpresa-hitzarmenak lortzeko asmoz, ekintza sindikala aktibatzea.

**Sektore eta enpresatan jarrera zehatzak finkatzeko, ELAk kontuan hartzen du sektore bakoitzaren errealitatea, patronalaren jarrera haietako bakoitzean, eta langileek dituzten aldarrikapenak.**

*Para fijar sus posiciones concretas en los diferentes sectores y empresas, ELA ha tenido en cuenta la realidad de cada sector, la postura de la patronal en cada caso y las reivindicaciones de los trabajadores y las trabajadoras.*

*Analizadas las reformas y la coyuntura, ELA estableció sus objetivos reivindicativos para la negociación colectiva: subidas salariales referenciadas al IPC, frenar la extensión de la precariedad, que no hubiera retrocesos en las condiciones pactadas, así como cláusulas que garantizaran la aplicación de los convenios que se firmaran, además de la ultraactividad.*

*Visto el bloqueo ejercido por la patronal en la negociación sectorial, ELA se planteó, además, impulsar la negociación de convenios de empresa. La patronal deseaba el ámbito de empresa solo para empeorar las condiciones laborales y ganar más flexibilidad. Por el contrario, dando centralidad a la organización sindical en las empresas, ELA busca mejorar su relación de fuerzas para impedir la unilateralidad empresarial. Una respuesta coherente para luchar contra las reformas y el bloqueo patronal es activar la acción sindical con el objetivo de lograr convenios de empresa.*





# 4 GUGAN ERAGINA DUTEN GAJETAN ERABAKI NAHI DUGU

QUEREMOS DECIDIR EN LOS TEMAS QUE NOS AFECTAN



Patronalek, CCOO eta UGTk legea erabiltzen dute euskal gehiengoek non eta zer negoziatu nahi duten erabakitzea eragozteko.

Adibideak:

1. **Ostalaritzako Estatuko Lan Akordioak** (OELA) beretzat gordetzen ditu modu esklusiboan negoziazio-gaiak eta eragotzi egiten du bestelako negoziazio-eremuei ekitea estatuko batzordeak horretarako bai menik ematen ez badu.
2. Madrilen sinatutako **Sukaldaritzaren Hitzarmenak** espresuki eragozten du negoziazioa eremu guztietan. Hura sinatu duten sindikatuek betoa jartzen diete, esaterako, guk Bizkaian negoziatzeari, haiek %18,74 baino ez dute. Estatuko Errestaurazioko Hitzarmenak %50eko soldata galera eta urtean 50 ordu gehiago ezartzen ditu.

*Las patronales, CCOO y UGT usan la ley para impedir que las mayorías vascas puedan decidir dónde y qué quieren negociar.*

*Ejemplos:*

1. El **Acuerdo Laboral Estatal de Hostelería** (ALEH) se reserva en exclusiva materias de negociación e imposibilita la apertura de nuevos ámbitos de negociación si la comisión estatal no lo autoriza.
2. El **Convenio de Restauración** firmado en Madrid impide expresamente la negociación en cualquier ámbito. Los sindicatos que lo firman quieren vetar, por ejemplo, que negociemos en Bizkaia, donde ellos sólo tienen el 18,74 %. En este convenio estatal se establece una pérdida salarial del 50% y un incremento de 50 horas al año.

3. **Lorezaintzako Hitzarmena.** Hitzarmen horretan jasotzen da estatuan negoziatzen diren gaiak ezin direla Autonomia Erkidegoan negoziatu.
4. **Ile-apaindegietako Hitzarmena.** Eragotzi egiten dute herrialde eta autonomia erkidegoek soldata igoera, urteko lanaldia, laneko ordutegia eta oporraldia ez den beste ezer arautzea. Gainera, eremu berriak zabaltzeko, estatuko batzordeari jakinaraztea eskatzen du.
5. **Drogeria, lurrindegia eta belar-dendetako Hitzarmena.** Honako egitura hau sortu da: Estatuko hitzarmena, Foru hitzarmena edo Autonomia Erkidegokoa eta Enpresa-hitzarmena. Herrialdeetako hitzarmenak desagertu egiten dira; eta horrekin, antzinate nagatik osagarria.
6. **Estatuko Merkataritzako Esparru Akordioa.** Indarraldia galdu aurretik hitzaurrea aldatu nahi zuten, herrialde-eremuak onartu behar ez izateko, gaiak eurentzat gordetzeko eta Euskal Autonomia Erkidegorako Merkataritzako Esparru Akordioa (MEA) indarririk gabe utziko zuten egiturazko elementuak sartzeko. ELAren xedea zen EAEn sinatutako MEAk berma zezala, besteak beste, Bizkaiko Ehungintzako Merkataritza hitzarmena aplikatuko zela. Izan ere, hitzarmena eta MEA aldi berean negoziatu ziren. Bizkaiko Ehungintzako Hitzarmena CECOBirekin (sektore horretan ELAk % 80ko ordezkari izan da) eta lehen aipaturiko Sektoriko Esparru Akordioa sinatu ondoren, CCOOko ordezkari batek adierazi zuen Estatuko Merkataritzako Esparru Akordiorako mahaiari: “badakizue zertara etorri garen, euskal Sektoriko Esparru Akordioa hankaz-gora jartzera”. Oraingoz –beste arrazoi batzuen artean, Estatuko zenbait patronalen ezezkotasunak–, ez dute lortu.



3. **Convenio de Jardinería.** *En este caso se recoge que las materias negociadas en el ámbito estatal no pueden ser negociadas en el ámbito de la Comunidad Autónoma.*
4. **Convenio de Peluquerías.** *Se impide que los ámbitos provinciales y autonómicos regulen materias que no sean los incrementos salariales, la distribución de la jornada anual, el horario de trabajo y el periodo de disfrute de vacaciones. Además, exige que para la apertura de nuevos ámbitos se comunique a la comisión estatal.*
5. **Convenio de Droguerías, perfumerías y herboristerías.** *Se crea la siguiente estructura: Convenio Estatal, Convenio foral/comunidad autónoma y Convenio de Empresa. Desaparecen los convenios provinciales y, con ello, el complemento de antigüedad.*
6. **Acuerdo Marco de Comercio Estatal.** *Se pretendía, antes de que perdiera vigencia, modificar el preámbulo para no reconocer los ámbitos provinciales, reservarse mate-*



7. **Metalgintzaren sektorean**, izaera orokorreko estatuko hitzarmena adosteko prest daudela erakutsi dute jendaurrean CCOO eta UGTk. Ez du zerikusirik Euskal Herri industrializatuak sektore horrek horrenbeste pisua ez duen estatuko beste leku batzuekin. Aipatutako sindikatuek bultzatuta, negoziazio-egiturarako akordioa adostu dute Madrilen herrialdeetako hitzarmenen edukia mugatzen dituen eta etorkizunean edukiz husteko atea zabaltzen duena.



8. Bizkaiko **kontserben sektorea** deuseztatu egin dute Madrilgo akordio baten bidez. CCOO, UGTk eta patronalak erabaki dute ez dagoela estatukoaren azpitik dagoen sektore-eremurik. Ultraktibitate mugagabea zegoen eremua zen.

*rias e introducir elementos de estructura que dejaran sin efecto el Acuerdo Marco del Comercio (AMC) para la Comunidad Autónoma del País Vasco. Ese AMC firmado por ELA en la CAPV tenía por objeto dar garantías de aplicación, entre otros, al Comercio de Textil de Bizkaia. De hecho, el convenio y el AMC se negociaron a la vez.*

*Tras la firma del Convenio de Textil de Bizkaia con CECOBİ (en este sector ELA tiene un 80% de representación) y del Acuerdo Marco Sectorial antes citado, un representante de CCOO manifestó en la mesa del Acuerdo Marco de Comercio Estatal: "ya sabéis a qué hemos venido, a cargarnos el Acuerdo Marco Sectorial vasco". De momento -entre otras razones, por la negativa de algunas patronales en el Estado- no lo han conseguido.*





- 9. Eraikuntzan**, gaien %90 soilik estatuan negozioa daitezke. Hitzarmen hori ere aitzindaria da erakunde sinatzaileen formazioarako funts publikoen aldaketan, Eraikuntzako Txartel Profesionalaren bidez.
- 10. Mendeko pertsonen arretarako eta autonomia pertsonalaren sustapenerako zerbitzuen estatuko esparru hitzarmena** (persona nagusientzako egoitzetako, eguneko eta gaueko zentroetako, babespeko etxebizitzetako, etxez etxeko laguntza zerbitzuetako eta teleasistentziako langileei dagokie). Estatuko negoziazioa lehenetsida, eta hitzarmen kolektiboen kopurua murriztu nahi dute. Era berean, estatutik behararako eremuetan negoziatu edo egokitu ezin diren gaiak jasotzen ditu; hala nola, froga-aldia, kontratazio-modalitateak, mugikortasun geografikoa, etab.
- 11. Telemarketina:** besteak beste, subrogazioa arautzen du, baina ez behar beste, eta bermerik gabe.
- Eragindako sektoreak zein diren ikusita, ondoriozta dezakegu estatalizazioak emakumeek pairatzen duten txirotzea eta prekaritatea larriagotzen dituela.**
- A la vista de los sectores afectados, se puede concluir que la estatalización agrava el empobrecimiento y la precariedad que sufren las mujeres.**
- 7.** *En el **sector del metal**, CCOO y UGT han mostrado públicamente su disposición a acordar un Convenio estatal de carácter general. Nada tiene que ver la industrializada Euskal Herria, con lugares del estado en los que este sector no tiene tanto peso. Por impulso de los citados sindicatos, se ha acordado en Madrid un acuerdo de estructura de negociación que limita los contenidos de los convenios provinciales y abre la puerta a su futuro vaciamiento.*
- 8.** *El **sector de conservas** de Bizkaia ha sido eliminado mediante un acuerdo en Madrid. CCOO, UGT y la patronal han determinado que no existe ámbito sectorial inferior al estatal. Era un ámbito donde existía la ultraactividad indefinida.*
- 9.** *En la **Construcción** el 90% de las materias pueden negociarse sólo en el ámbito estatal. Este Convenio también es pionero en el trasvase de fondos públicos para la formación a las organizaciones firmantes, mediante la Tarjeta Profesional de la Construcción.*
- 10. Convenio Marco estatal de Servicios de Atención a las personas dependientes y desarrollo de la promoción de la autonomía personal** (afecta a las trabajadoras de residencias para personas mayores, centros de día, centros de noche, viviendas tuteladas, servicio de ayuda a domicilio y teleasistencia). Se establece como preferente la negociación estatal, y pretende reducir el número de convenios colectivos. A su vez, recoge materias no negociables ni adaptables en ámbitos inferiores a los estatales, como el periodo de prueba, modalidades de contratación, movilidad geográfica, etc.
- 11. Telemarketing:** *entre otras cosas regula la subrogación de manera insuficiente y poco garantista.*



# 5 NAHIAGO DUTE ESPAINIA

## PREFIEREN ESPAÑA

ELAk ez du onartuko ordezkariarik ez duten patronalek joko-arau guztiak hautsi ditzaten, Gobernuaren laguntzarekin. Aipatu beharra dago, bestalde, ez dela Confebask Madrilen hartutako erabakien onuraz baliatzen ari den bakarra; izan ere, enpresa askok estatuko esparruak aukeratzen dituzte beren langileei lan-baldintza okerragoak ezartzeko. Hori da Mondragon Korporazioaren kasua (lehenago MCC). Hark uko egiten dio euskal esparruan autonomia erkidegoko edo enpresako hitzarmenak negoziatzeari eta Estatuko Errestaurazioko Hitzarmenaren alde egiten du. “Erroturik” dauden euskal enpresak izan arren, Espainiako hitzarmenei ez diete muzin egiten.

Ildo beretik, azpimarratu nahi dugu estatuko sindikatuek ere nahiago izaten dutela Espainia. Izan ere, Hego Euskal Herrian sektoreko negoziazioaren alde daudela esaten duten bitartean, UGT eta CCOO sindikatuek erreformak erabiltzen dituzte euskal eremuan gehiengo

**Estatutik eragotzi egiten dute ordezkariaren gehiengoaren dutenek lan-baldintzak erregulatzea. Ezin dugu onartu ordezkariarik aurkeztu nahi ez duen -eta aurkeztu ezin duen- patronalak negoziazioak aurrera eramatea.**

**Desde el estado se impide que una mayoría representativa regule las condiciones de trabajo. No podemos tolerar que lo haga una patronal que ni quiere, ni puede acreditar representación para llevar a cabo esas negociaciones.**

garenok non eta zer negoziatzen dugun erabaki dezagun eragozteko.



*ELA no va a aceptar que patronales sin representación rompan todas la reglas de juego con el apoyo del Gobierno. En este sentido, no solo Confebask trata de sacar ventaja de las decisiones tomadas en Madrid. Muchas empresas optan por los ámbitos estatales para imponer a sus trabajadores y trabajadoras unas condiciones laborales peores.*

*Es el caso de la Corporación Mondragón (antigua MCC), que se niega radicalmente a negociar en el ámbito vasco convenios de Comunidad Autónoma o de empresa, y opta por que se aplique el Convenio de Restauración Estatal. A pesar del presunto “arraigo” de este tipo de empresas, no hacen ascos a los convenios españoles.*

*En este sentido, es importante subrayar que los sindicatos de ámbito estatal también prefieren España. Mientras en Hego Euskal Herria dicen defender la negociación sectorial, UGT y CCOO usan las reformas para impedir que las mayorías sindicales vascas puedan decidir dónde y qué quieren negociar.*



## Autogobernua? Zertarako?

### ¿AUTOGOBIERNO? ¿PARA QUÉ?

Madrilen negoziatzeak txartu egiten ditu euskal langile gehienon baldintzak eta gure herria txirotzen du. Hori dela eta, aberastasuna banatzen laguntzen duten tresnak eskatzen ditugu. Horren ildotik, ELAk gogorarazi nahi dio EAJri 1994. urtean babes-klausula bat txertatu zuela Espainiako legean euskal hitzarmenak hemen erabaki zitezten, eta ez Madrilen. Gaur egun ez du gauza bera defenditzen, eta gainera, haren erantzukizun-eremuetan estatuko hitzarmenak aplikatzen ditu.

Negoiazio kolektiborik gabe ez dago autogobernurik. ELAk ez du sinesten euskal gehiengo sindikalari askatasun sindikalerako eta kolektiboki negoziatzeko eskubidea ukatzen dizkion autogobernu baliogabetu batean. Lana duintzen laguntzen duten hitzarmenak nahi ditugu.

**Euskal langile gehienon baldintzak okertzen ditu estrategia honek, eta hortaz, gure herrialdearen txirotzea dakar. Horregatik, ELAk aberastasuna banatzen lagunduko duten tresnak eskatzen ditu. Kontrara, autogobernua hutsik egongo da.**

**Negoiazio kolektiborik gabe ez dago autogobernurik, euskal gehiengoak sinatu genituen eta lana duintzen laguntzen duten hitzarmenak baliogabetzen dituztelako.**

*Las negociaciones en Madrid empeoran las condiciones de la mayoría de las trabajadoras y trabajadores vascos y empobrecen nuestro país. Por ello, exigimos instrumentos que ayuden a la distribución de la riqueza. En este sentido, ELA recuerda al PNV que en 1994 fue capaz de introducir en la ley española una salvaguarda para que los convenios vascos se decidiesen aquí y no en Madrid. Hoy no solo no defiende lo mismo, sino que en sus ámbitos de responsabilidad aplica convenios estatales.*

*Sin negociación colectiva no hay autogobierno. ELA no cree en un autogobierno devaluado en el que se niegue a las mayorías sindicales vascas el derecho a la libertad sindical y a negociar colectivamente. Queremos convenios que ayuden a dignificar el trabajo.*

**Esta estrategia empeora las condiciones de la mayoría de vascos y vascas y, en consecuencia, empobrece nuestro país. Por ello, ELA pide instrumentos que ayuden a la distribución de la riqueza. En caso contrario, el autogobierno estará vacío.**

**Sin negociación colectiva no hay autogobierno, porque se están anulando convenios que firmamos las mayorías vascas y ayudan a dignificar el trabajo.**



# 7

## GURE ERABAKI AHALMENA BERRESKURATZEKO PLANA

### UN PLAN PARA RECUPERAR NUESTRO PODER DE DECISIÓN

Langileek euren lan-baldintzei buruzko erabakiak bertatik bertara hartzeko eskubidea berreskura dezaten borrokatuko da ELA. Horretarako, honako ekintza hauek egingo ditugu:

- Negoziazio kolektiboa euskal eremuan gauzatzearen aldeko ekimena aurkeztuko dugu Eusko Legebiltzarrean, gure autogobernuak eskubide hori jaso dezan.
- Iñigo Urkullu lehendakariari eta Uxue Barkos, Nafarroako presidenteari bilera egiteko eskatu diegu. Urkullu Lehendakariak uko egin dio ELArekin bilera egiteari.

*ELA va a luchar para devolver a la clase trabajadora su derecho a decidir sobre sus condiciones de trabajo aquí. Para ello, vamos a desarrollar las siguientes acciones:*

- *Plantear al Parlamento Vasco una iniciativa en defensa de la negociación colectiva en el ámbito vasco, para que nuestro autogobierno recoja este derecho.*
- *Solicitar reuniones al Lehendakari Iñigo Urkullu y a la presidenta de Navarra Uxue Barkos. El Lehendakari Urkullu se ha negado a reunirse con ELA.*





- Prestatu dugun dokumentua Madrilgo Gortetako, Eusko Legebiltzarreko eta Nafarroako Parlamentuko taldeei helaraziko diegu.
- Lan Harremanetarako eta Gizarte Babeserako Euskal Esparruarekiko gure konpromisoa berresten dugu.
- Alderdiei gurekin bilera egiteko eskatuko diegu negoziazio kolektiboaren estatalizazioaren aurka euren laguntza jasotzeko.
- *Dirigir el documento que hemos elaborado a los Grupos Parlamentarios de Madrid, del Parlamento Vasco y de Navarra.*
- *Reafirmar nuestro compromiso con el Marco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social.*
- *Solicitar reuniones a los partidos para recabar su apoyo contra la estatalización de la negociación colectiva.*

Eta, jakina, patronalak lortu duen botere izugarria geldiarazteko modurik eraginkorrena sindikatua indartzea dela azpimarratu nahi dugu. Bakarka, banaka-banaka bagabiltza, patronalak eta gobernuek nahi dutena egingo dute. Talde moduan lortuko dugu soilik, haiei aurre egiteko eta gure eskubideak defendatzeko indarra.

*Y, por supuesto, insistir en que la forma más eficaz de frenar el inmenso poder que la patronal ha obtenido es reforzar el sindicato. Si vamos uno por uno, una por una, la patronal y los gobiernos harán lo que quieran. Solo actuando conjuntamente conseguiremos la fuerza necesaria para hacerles frente y defender nuestros derechos.*